

2020KO KUDEAKETA TXOSTENA

Urteko ur-ekoizpena 29.798.737 m³-koa izan da, 2019an baino %1,77 gutxiago eta azken bost urteetako batezbestekoa baino %1,06 gutxiago.

COVID-19aren krisiak eragin du ekoizpen-jaitsiera hori. Martxoaren 15ean, igandea, krisia hasi bitarteko ekoizpena 2019koa baino %1,2 handiagoa eta azken bost urteetako batezbestekoa baino %2,2 handiagoa zen. Egun horretatik aurrera alarma-egoera eta konfinamendua hasi zen, jarduera ekonomikoa eten zen eta ondorioz ur-kontsumoa jaitsi zen. Nabarmendu behar da lehen alarma-egoeraren 12 asteetan kontsumo-jaitsiera %3,9koa izan zela 2019arekiko eta %7,4koa aurreko bost urteetako batezbestekoarekiko.

Kontsumo-jaitsiera handiena apirilaren 1a eta 13a artean izan zen; izan ere, aldi horretan, konfinatuta egoteaz gain, funtsezkoak ez ziren jarduerak etenda egon baitziren. Hartara, guztizko ur-ekoizpena apirilean baxuena izan zen erregistroak daudenetik.

Beste alde batetik, konfinamendu-aldiak kontsumo-ereduetan aldaketak ere ekarri zituen. Asteko kontsumo-eredu normala lanegunetan kontsumo handiagokoa da, baina konfinamenduan zehar kontsumoak asko berdindu ziren asteke egun guztietan. Era berean, lanegunetan, kontsumo maximoa goizeko zortziak inguruan izaten da, baina aldi horretan hamaikak arte atzeratu zen.

Nabarmendu beharreko beste datu bat da, nahiz eta Aste Santua urteko kontsumo txikiena izaten duen aldia izan ohi den, 2020an ur-kontsumoa azken urteetako handiena izan zela jaiegun horietan konfinamenduaren ondorioz; hain zuzen, 2019koa baino %11,2 handiagoa izan zen.

Kontsumoak eremuka izandako bilakaera dela-eta, aldi horretan kontsumo-beheratze handienak industria-guneetan eta ostalaritza- eta merkataritza-jarduerako guneetan izan ziren, besteak beste, Iruñeko Alde Zaharrean eta Bigarren Zabalgunean. Hala ere, kontsumo-emendatzeak ere izan ziren zenbait auzo eta udalerritan, adibidez, Txantrean, Sarrigurenen, Barañainen eta Zizur Nagusian, beren kontsumo-eredu normala nagusiki etxebizitzetakoak baita.

Konfinamendua arintzeak eta ondorengo normaltasun berriak kontsumoak lehengoratzera ekarri zuten, nahiz eta jarduera ekonomikoak baxua izaten jarraitzen duen eta ez diren lortu garaiko berezko kontsumo-balioak. Uztailean eta abuztuan nolabait lehengoratu ziren kontsumoak, eguraldi onari eta prezipitazio-ezari esker.

Urteko prezipitazioa Iruñean 810 mm-koa izan da, batezbesteko historikoa baino %5 handiagoa. Abenduko (182 mm), apirilako (113 mm) eta martxoko (106 mm) prezipitazio altuak nabarmendu behar dira, eta urtarrileko, otsaileko eta azaroko baxuak.

Tiebasko EUTEren funtzionamendua programatutakoaren arabera egin zen: ekainaren 23an hasi zen lanean, eta urriaren 15ean itxi zen, eta, hortaz, 114 egun eman zituen jardunean. Aldi horretako beharren %24ri erantzun zien.

Tiebasko EUTEn ekoizitako urteko bolumena 2006an lanean hasi zenetik izan duen batezbesteko historikoa baino %40 handiagoa izan zen.

Hornidura-sarearen ustiapen-emaitzak direla-eta eta kontsumoko kontagailuen irakurketa ixtea falta dela, erregistratu gabeko uraren behin-behineko adierazlea 2020an %11,68koa izan zen, 3.480.064 m³. 3.000.000 m³-tik behera 4 urte eman eta gero, joera amaitu du, nahiz eta datu absolutu ona izaten jarraitzen duen.

Sareak kudeatzean gauzatu diren ekintza nagusiak egiten jarraitu da, besteak beste: sektorizazio-politika, erregistratu gabeko ura sektore dinamikoaren arabera lortzea, datuak aztertzekeko tresna berriei esker, ur-ihesak bilatzeko teknologia berriak martxan jartzea, zerbitzuaren presioa murriztea, emari-neurgailuak berritzea haien fidagarritasuna hobetzeko eta ur-ihesak konpontzea. 2020an 841 ur-ihesak konpondu dira, aurreko urtean bezalatsu.

Uraren kalitateari dagokionez, urtea normaltasunez joan da, nahiz eta, batik bat lehen seihilekoan, COVID-19aren ondoriozko osasun-egoerak markatu duen eta, urtearen amaieran, Egillorko EUTEn egin diren birmoldaketa-lanek. Hala ere, lan horiek gorabehera, kontsumoko uraren kontrol zorrotza egin da.

Ez da erregistratu gorabehera nabarmenik, sareko puntu jakin eta bakartu batzuetan kloro-ezeko kasuak izan ezik, eta bai kontaktuan dauden materialekin lortutako zenbait alderdi ere, kontsumitzailearen txorrotako laginetan. Sarean kloro-maila baxuak egotearekin lotuta Urtasungo EUTEn gorabeherak emendatu izana nabarmendu behar da, materia organiko konplexuaren kontzentrazioa handitzearen ondorioz, eta dagoen tratamenduaren ahalmen maximoa mota horretako materia organikoari aurre egiteko.

Beste alde batetik, Uraren Osasun Plana hedatzen jarraitu da, 2013an egindako diagnostikoko arrisku adierazgarriak minimizatuta. Urte honetan egindako mugarri garrantzitsu hauek nabarmendu behar dira:

- Olaibar eta Ezkabarte hornitzeko lanak amaitu dira, eta, hortaz, IMn sartu dira Olabe, Olaitz, Enderitz eta Eusa herriak.
- Ponpaketa berria jarri da martxan Soraurendik Eusako ur-biltegiak, eta konexioa Makirriainen dagoen sarera, Ezkaba mendiaren iparraldeko mazelan dauden herriak, Txulapaingoak, bi hornidura-iturri desberdinetatik hornitzeko bidea emanez. Halaber, urtearen amaieran linea horretatik Azotz hornitzeko obrak hasi dira.
- Urtasungo EUTEko tratamenduak hobetzearen ildotik, birmoldaketako II. fasea gauzatu da: ur-lineako dekantazio-tangak berritu dira. Une honetan, hurrengo fasean ari gara lanean, sarrerako obra, tratamendu osagarriak, erreaktiboaren gela eta lohien instalazioa berritzea.
- Ur-biltegiak segimendua egin da: bi kamera, beren konektibitatea hobetzeko, kloro-mailak mantentzeko eta berritze zuzenari dagokionez. Ur-biltegiak prebentzio-mantentzerako plana egiten jarraitzen da, bost urtean behin hustu eta garbituta.
- Hornitutako uraren segimendua egin da amianto-zuntzei dagokienez, eta ez da anomaliarik erregistratu.
- Lehorteetarako Plana eguneratzea onartu du Ebroko Ur Konfederazioak (abuztuaren 10ean) eta IMren Batzar Nagusiak (2020ko azaroan).
- Eugiko urtegi klorofiloen jarraipena egiten jarraitzen da, unean uneko laginketetatik eta analitiketarik eta perfiladorean islatutako joeretatik abiatuta. Ikusi da hazkunde adierazgarria izan dela edukietan, aurreko urteekin alderatuta (antzeko egoera detektatu da beste urtegi batzuetan, hala nola Mairagakoan).
- Urtearen bigarren seihilekoan, laginak hartzeko sei dorre berri kokatu dira, hartara, landa-eremuetako gunek esanguratsuenak estaltzeko. Beharra detektatzen bada kasu jakin batzuetan, laginketarako instalazio berriak

hartuko dira barne.

Saneamenduari dagokionez, martxoan, hondakin-urak ponpatzeko Arazuriko estazioko kolektore eta ponpaketa berria inauguratu zen, Ororbia, Zuasti, Orkoien eta Arazuri udalerrietako hondakin-urak ponpatzeko (guztira, 5.607 biztanle dira) Arazuriko HUAra. Nabarmen handitu da bulkatutako emaria, eta ponpaketa zaharraren arazoak konpondu dira. Horrez gain, gainezkabidean arbastatze-sistema bat kokatu da, solidoak kentzeko bidea ematen duena ponpaketa-estazioaren ponpatze-ahalmenaren gainetik husten denean ura.

Ekainean amaitu ziren Noaingo hondakin-uren ponpatze-estazioan instalazioak birmoldatzeko lanak. Nabarmen handitu da bulkatutako emaria, eta Imarkoain, Dorre (Elortzibar), Oritz, Zulueta, Zabalegi eta Elortz udalerriei zerbitzua ematen dien sarearen ahulgune bat konpondu da (1.291 biztanle dira guztira). Ponpaketa hori Arazuriko HUAra konektatuta dago.

Ekainean, Robo ibaiaren saneamenduaren bigarren fasea osatu zen, Legarda, Muruzabal eta Utergako hondakin-urak jasotzen dituena. Zeuden lau hobi septikoak baliogabetu dira, Legardan ponpaketa bat eginda eta 5 kilometroko kolektorea, Robo ibaiaren ondoan dagoen kolektoreari batzen zaiona. Hartara, hondakin-urak Garesko araztegiara bideratzen dira (NILSAren eskumenekoa da).

Uztailean, era berean, Izu eta Asiango toki-arazketarako obrak hasi ziren. Hain zuzen, ponpaketa bat jarri da Asiain herrian eta araztegi txiki bat Izun, 231 biztanleren arazketari erantzuteko.

Halaber, 2020an, Saratsateko, Argiñarizko eta Ustarrozko hobi septikoak berritu dira.

Arazketa dela-eta, Arazuriko HUAra hondakin-ur influentearen bolumena 35.817.843 m³-koa izan da, azken bost urteetako batezbestekoa baino %1,93 gutxiago, eta karga kutsatzailea, berriz, 544.758 biztanle baliokidekoa izan da, azken bost urteetako batezbestekoa baino %12,39 txikiagoa, beharbada COVID-19ak eragindako krisitik eratorritako jarduera ekonomikoaren etete partzialaren ondorioz. Nabarmendu behar da krisialdi honetan guztian zerbitzuak ongi funtzionatu duela.

41.741 tona lohi sortu dira, azken bost urteetako batezbestekoaren aldean, %14,08 gehiago, eta aurreko bi urteetako goranzko joerari eutsi zaio, horrenbestez.

5.825.887 Nm³ biogas sortu dira, azken bost urteetako batezbestekoa baino %11,68 gehiago. HUAren errendimendu elektrikoa %101,64koa izan da, azken bost urteetako %97,52ko batezbestekoa baino handiagoa, eta bigarren urtea izan da Arazuriko HUAren bizitzan, non ekoiztiko energia prozesuan kontsumitutakoa baino handiagoa izan den.

	2018	2019	2020
Ur-ekoizpena, guztira	29.566.180	30.335.107	29.798.734

Analisi bidezko kontrola

Analisi bidezko kontrola	Laginak	Parametroak
Hornidura-iturriak	528	9.278
Ura edateko on bihurtzeko prozesua	1.716	5.412
Tratatutako urak	438	12.658
Ur-biltegiak	724	22.712
Banaketa-sarea	214	6.522
Kontsumoko iturria	439	7.583

Isuriak ibilgura	163	489
Eskaerak (SCPSA)	251	1.290
Eskaerak (kanpokoak)	12	220
Kalitate-kontrola eta barnekoak, laborategia	1.178	4.776
Kontrolak, guztira	5.663	70.940

Kontrolen emaitzak

Banaketa-sarea eta kontsumoko iturria	Emaitza konformeen %
Hornitutako uraren kalitate organoleptikoa	%100
Hornitutako uraren kalitate mikrobiologikoa	%99,9
Hornitutako uraren kalitate kimikoa	%99,8
Erradioaktibitate-eza, aztertutako laginetan	%100

Edateko uren araztegiak (EUTEak)	Emaitza konformeen %
Hornitutako uraren kalitate organoleptikoa	%100
Hornitutako uraren kalitate mikrobiologikoa	%100
Hornitutako uraren kalitate kimikoa	%99,8
Erradioaktibitate-eza, aztertutako laginetan	%100

Kontsumoa (m³)

		2018	2019	2020
		m ³	m ³	m ³
Zerbitzu publikoak	Administrazio publikoak	506.069	497.898	480.617
	Udal-zerbitzuak	915.655	941.759	784.408
	Interes sozialeko erabilera	609.257	600.552	501.063
Zerbitzu publikoak, guztira		2.030.981	2.040.209	1.766.088
Merkataritza-industria	Nekazaritza eta abeltzaintza	2.403	1.979	2.304
	Merkataritza	3.840.872	3.991.805	3.179.490
	Merkataritza/ureztatzea	47.672	49.911	42.712
	Suteak, aho zigitatuak	26	23	0
	Suteak, kontagailuarekin	9.126	18.181	18.302
	Industria	1.781.745	1.841.880	1.522.909
	Jarduerarik gabeko lokalak	0	0	49
	Obrak	105.473	124.078	139.204
	Behin-behineko zerbitzu berezia	50.157	22.465	17.162
Merkataritza-industria, guztira		5.837.474	6.050.322	4.922.132
Etxebizitzak	Etxebizitzak	12.382.723	12.506.878	13.261.366
	Etxebizitzak/merkataritza	25.803	33.275	27.942
	Etxebizitzak/merkataritza/ureztatzea	6.563	6.810	6.233
	Etxebizitzak/ureztatzea	2.551.139	2.695.019	2.785.309
Etxebizitzak, guztira		14.966.228	15.241.982	16.080.850
Apaingarriak-ureztatzeak	Iturriak	66.768	68.690	40.342
	Aisiako baratzeak	47.921	58.208	65.782
	Ureztatze pribatua	630.303	707.959	626.402

	Ureztatze publikoa	532.948	563.677	459.688
	Udal-ureztatzea	2.153.472	2.200.738	2.067.230
Apaingarriak-ureztatzeak, guztira		3.431.412	3.599.271	3.259.444
Hornidura tokiko erakundeei, guztira	Hornidura tokiko erakundeei	41.697	79.095	50.948
Hornidura tokiko erakundeei, guztira		41.697	79.095	50.948
Kontsumoa, guztira		26.307.792	27.010.880	26.079.462

Kontsumoa (litroak biztanle eta eguneko)

	2018	2019	2020
Etxebizitzetakoak	113	113	118
Industria-merkataritza	44	45	36
Iturriak eta ureztatzeak	26	27	24
Kontsumoaren emaitzak, guztira	198	201	191

Saneamendua eta arazketa

Arazuriko HUAren errendimenduak	2018	2019	2020
Tratatutako ur-emaria	41.961.652	37.593.129	35.712.461
Solido esekiak	%95,8	%97,4	%97,1
Oxigeno-eskari kimikoa	%93,7	%94,9	%94,5
Oxigeno-eskari biokimikoa	%95,7	%96,6	%96,5
Nitrogenoa	%73,5	%81,2	%76,8
Fosforoa	%88,7	%91,9	%90,1

Analisi bidezko kontrola laborategian	2018		2019		2020	
	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak
HUAko lohien lineak	3.351	9.569	3.556	9.900	3.440	8.648
Industria-isurketak	965	11.583	939	11.884	786	9.826
Uraren linea, HUA	712	18.376	756	19.197	782	18.271
Hobi septikoetan	218	2.069	217	2.958	185	1.850
Ibilguen kontrola	34	900	37	997	31	836
Lohi deshidratatua eta konposta	307	2.455	301	2.406	294	2.264
barneko kontrola. guztira	5.587	44.952	5.754	47.342	5.518	41.131
Kanpoko analisiak eta zenbait	4.571	50.581	5.287	56.984	4.531	48.948
Laborategiko analisiak, guztira	10.158	95.533	11.041	104.326	10.049	90.679

	2018	2019	2020
Industria-isurketen kontrola			
Ikuskatzeak industriei	35	31	28
Ikuskatzeak tokiko araztegiei	17	16	16
Jarduera sailkatuen espedienteak	154	144	156
Beste txosten batzuk	65	49	45
Isurketa etenen baimenak	96	105	96
Ibilgura isurtzeko baimenak	8	8	18

Kontrola eta mantentzea prozesuan	2018	2019	2020
Ekipoak, guztira, linean	36	38	38
OTen kopurua	500	398	572
Ratio zuzentzailea/prebentziozkoa	%3,7	%3,1	%3,0
Prebentziozkoa betetzearen ratioa	%94,2	%97,0	%98,0

Hornidura-iturriak

Artetako iturburua

Udarbe ibaiaren buruan.

- Biltzeko azalera: 100 km
- Iturburuaren batez besteko emaria: 2.863 l/s
- Hornidurarako baliatutako batez besteko emaria: 513 l/s
- Energia hidroelektrikoa ekoizteko baliatutako batez besteko emaria: 1.647 l/s
- Udarbe ibaira isuritako batez besteko emaria: 703 l/s

Eugiko urtegia

Arga ibaiaren buruan

- Oinplano makotua duen grabitate-presa
- Ibaiaren mailaren gaineko garaiera: 44,3 m.
- Luzera: 252 m
- Presaren bolumena: 21 hm³
- Kota maximoa: 628 m
- Azalera: 123 ha
- Batez besteko sakonera: 18 m
- Bertan ura zenbat egoten den: 2-5 hilabete

Itoizko urtegia

Kokapena: Irati ibaia (Longida ibarra)

- Presa-mota: grabitatekoa, hormigoi arruntarekin egina
- Zimenduen gaineko garaiera handiena: 122 m
- Bururatze-luzera: 525 m
- Bururatze-kota: 592 m
- Gehieneko mailan normalean estalita dagoen azalera: 1.100 ha
- Ur-mailak normalean gehienez duen edukiera: 418 hm³

Edateko ura tratatzea

- Urtasungo EUTE. Tratatze ahalmena: 1.050 l/s
- Egillorko EUTE. Tratatze ahalmena: 800 l/s
- Tiebasko EUTE. Tratatze ahalmena: 1.000 l/s

Hornidura-sarea

- Luzera: 1.476 km

- Harguneak: 43.503
- Ur-biltegiak: 138 unitate. Edukiera: 268.669 m³
- Ponpatzeak: 53
- Emari-neurgailuak: 1.575

Saneamendu-sarea

- Luzera: 1.696 km
- Harguneak: 72.032

Ekaitz-urak biltzeko biltegiak

- Txantreako ekaitz-urak biltzeko biltegia
- V=3.000 m³ C2 kolektorera

Hondakin-uretarako instalazioak

	Ezaugarriak	kop.	Zerbitzua ematen zaien herritarrak
Arazuriko HUA	Tratamendu osoa: lehen mailakoa + biologikoa (nitrifikazio desfosforizazioarekin) Biosolidoak birziklatzeko planta, kogenerazio-planta	1	544.758
Hobi septikoak	Iragazki biologikoa dutenak	119	-